


Eurovision, gerra edo bakea nahieran



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Sternkirke (Flandria), 1692ko abuztuaren 3a. Frantziaren eta Augsburgotar Ligaren arteko Bederatzi Urteko Gerraren baitan, lehenek mendean hartu zituzten flandiarrek –eta haiekin bat egindako espainiarrak, ingelesak, eskoziarrak eta alemaniarrek–. Sternkirkeko garaipena ospatzeko, frantziarrek konposizio bat eskatu zioten Marc-Antoine Charpentier musikariari. Charpentierrek *Te Deum* obra erlijiosa osatu zuen, kutsu militar nabarmeneko.

Bi mende eta erdi geroago, 1950eko hamarkadan, gerraosteko Europa berre-raikitze lanetan buru-belarri zegoen, baita arerio izandako herrialdeen arteko harremanak berregiteko ahaleginetan ere. Europako Irrati-Telebista Batasunak (EBU), harreman baketsu horiek jai giroan estutzeko abesti txapelketa bat antolatzea erabaki zuen eta 1956an lehenengoz egin zuten Eurovision Abesti Txapelketa. Paradoxikoki, Europako herrialde baten garai-pen militarra eta beste askoren porrota ospatzen duen *Te Deum* pieza hautatu zuten txapelketaren himno gisa.

Himnoak himno, berriki Eurovisionek garbi adierazi du gerraren aurkako jarraera. Errusiak Ukraina inbaditu zuenean Suedia eta Finlandiako ordezkariak mehatxu egin zuten ez zutela jaialdian parte hartuko Errusiak parte hartuz gero. Otsailaren 25ean EBUk ofizialki Errusiako ordezkariak egotzi zuen 2022ko ekialditik; Europako lehen erakunde ofiziala izan zen Errusia “zigortzen”.



ESC

2020an Eurovision Abesti Txapelketa Tel Aviven ospatu zen eta Islandiako ordezkariak zuzenekoan Palestinaren aldeko aldarri laburra egitea lortu zuten.

Kontua da 1973an Israelek lehenengoz parte hartu zuela Eurovisionen. Israeldarren eta palestinarren arteko gatazka aspaldi piztua zen eta 1970eko hamarkada bereziki gordina izaten ari zen. Geroztik Israelek lau aldiz irabazi du Eurovision eta hirutan egin da jaialdia herrialde horretan. Eta sekula ez zaio boikotik egin. Azkenekoz 2020an ospatu zen jaialdia Israelen, eta herrialde guztiek txintik esan gabe parte hartu zuten. Islandiako ordezkariak, puntuaketen zain zeudela, Palestinako bandera eta palestinarren aldeko mezu bat erakustea lortu zuten segundo gutxi ba-

tzuez, antolakuntzaren arau eta neurri guztien aurka.

2005ean, jaialdiaren 50. urteurrenaren atarian, EBUk erabaki zuen ordu arteko irabazle guztien artetik onena aukeratu behar zela, eta ikusleek *Waterloo* aukeratu zuten, 1974an Abba talde suediarra ezagun egin zuen kanta. Abesti horretan Waterlooko gudua maitasunaren metaforatzat erabiltzen da. Eta, hortaz, Eurovisioneko garai guztietako irabazle ezin egokiagoa da, gerra eta bakea, inbasioa eta maitasuna, politika eta musika komeni bezala ulertzen eta nahasten dituen jaialdiarentzat. Himnotik bertatik hasita. ●



4.000 urteko ontziaren azala

2018an Arkeologiako Alemaniako Institutuko ikerlariak 7 metro luze zen ontzi baten arrastoak aurkitu zituzten Mesopotamiako Uruk hiriko aztarnategian lanean ari zirela. Zehazki, bere garaian ontzia inpermeabilizatzeko erabili zuten betun geruza mehea besterik ez zuten aurkitu. Berriki, geruza ahula

buztinez eta igeltsuz babestu, laborategira eraman eta 3D eredu bat egin dute. Gainera, betunari esker ontzia 4.000 urtetan datatu dute eta zer materialez egin zegoen jakin ahal izan dute, geruzaren barrualdean kanaberek, egurrak eta palma hostoek utzitako aztarnak gorde baitira. ●